

# **IKASKUNTZA-ZERBITZUA KOMUNITATEAN:**

## **Ikastetxeentzako proposamena**

### **(Bigarren Hezkuntza/Batxilergora egokitua)**

#### **- ZER DA IKASKUNTZA-ZERBITZUA KOMUNITATEAN:**

Ikaskuntza-zerbitzua hezkuntza-proposamen bat da, ikaskuntza-prozesuak eta komunitatearekin elkarlana ondo artikulatutako proiektu bakar batean uztartzen dituena. Proiektu horretan, parte-hartzaileak ingurunearen ekimen, beharizan edo gatazketan inplikatzeko trebatzen dira, hura hobetzeko helburuarekin. Horrekin batera, ezinbestekoa da, interbentzioa egingo den gizarte erronkaren edo komunitatearen sektorearen ezagutzan sakontzea eta horrek sortzen dituen gatazka etiko-politikoen inguruko hausnarketa aktibatzea.

Komeni da ikasleek erabakitzea norekin eta nola lan egin, irakasleak eskainitako markoaren barruan; eta jarduera ez izatea kanpotik zuzendua. Horrek lagunduko dio ikasleari proposatutako helburua lortzeko motibatuta egoten, proiektuaren azken etapara iritsi arte. Hala ere, irakasleak gida lana egin behar du eta, pizgarriak hasieratik egongo ez balira, batzuk eskaini behar dizkio ikaslegoari, ikastetxeko zein auzoko/herriko errealitate sozial eta politikoa hurbilduz.

#### **- KONTUAN IZAN BEHARREKOAK:**


1. Komunitateari zerbitzua emateko helburu argi bat definitzea: Komeni da ikasleek erabakitzea norekin eta nola lan egin, irakasleak eskainitako markoaren barruan; eta jarduera ez izatea kanpotik zuzendua. Horrek lagunduko du proposatutako helburua lortzeko motibazioa mantentzen.
2. Espero diren ikaskuntza-helburuak ezartzea: Proiektu orok espero den ikaskuntza izan behar du, curriculumari lotuta (konpetentzia gakoak) eta, posible den heinean, arloetatik programatutakotik tiraka.
3. Ikasleen autonomia ahalik eta gehien bultzatzea: Taldearen kontrola galdu edo amore emateak izutu egin gaitzake irakasle gisa. Baina, ikasleek onura handiagoa jasotzen dute, beren ekintzen erantzule egiten badira. Ikaskuntza-prozesuan gidari bihurtu daitezela ikasleak.
4. Erresilentzia. Litekeena da proiektua inplementatzean ustekabeko aldaketei aurre egin behar izatea. Horregatik, jarrera positiboa izan behar dugu, aldaketekiko tolerantziak izan behar dugu eta gure inprobisazio-trebetasunak praktikan jarri behar ditugu. Honek proiektua aurrera ateratzen lagunduko du.

5. Arriskuei aurrea hartzea: Gizarte-elkarte edo -talde bati lotutako proiektuek, oro har, kontuan hartu beharreko administrazio-prozesuak izaten dituzte. Gure planteamenduan aldaketarik egon ez dadin, hasi aurretik egin beharreko administrazio-izapideei buruzko zein komunitateko sektore horri buruzko informazioa jaso behar da.
6. Hausnarketa kritikoak eta ikerketak proiektu guztien sustraian egotea: Ekin behar dugu ikasleek aurrera eramaten dituzten proiektuak "karitatearen" ideia mugatzea. Horretarako, ezinbestekoa da marko sozio-politikoaren azterketa eta horren aurreko hausnarketa kritikoa txertatzea, ardura pertsonal eta kolektiboen eztabaidan murgilduz, beti ere ikaslearen adinera egokituz.

**- IKASKUNTZA-ZERBITZUA KOMUNITATEAN, HELBURU DIDAKTIKOAK:**

1. Oinarrizko 8 konpetentzien indartzea ikasleen IRTEERA PROFILARI begira.
2. Hezkuntza komunitatea kohesionatzea, herri/auzo-eragileak barne hartuz.
3. Ikaskuntza-irakaskuntza konpetentzialaren ideian sakontzea, ikaslearen autonomia indartuz.

**- KONPETENTZIEN ERREFORTSUA + IKASTETXEKO PROIEKTUAREN INDARTZEA:**



**\*OHARRA:** Beltzez dauden konpetentziak indartuko dira estrategikoki, nahiz eta beste laurak prozeduren bitartez edo ikastetxeko proiektuaren arabera indartuko diren.

## - KOMUNITATEAREN DEFINIZIOA:

**Ikas komunitateen** ideiatik abiatuta lan egingo dugu: Gizarte eta hezkuntza-eraldaketara bideratutako hezkuntza-jarduera arrakastatsuetan oinarritutako proiektua (ikus. Aranbizkarra ikas-komunitatea). Bi komunitate dimentsio ezberdinduko ditugu "Komunitateari zerbitzuak" espazioan lan egiteko:

- Komunitate hurbila: Ikastetxeko hormen barruan batzen garen guztiak (ikasle, irakasle, gela egonkor, hezitzaile, garbitzaile, atezain...).
- Komunitate zabala: Auzoan/Herrian/Hirian/Bailaran dauden eragileak (elkartek, udala, merkataria...) + familiak + komunitate hurbila.

## - OHAR METODOLOGIKOAK + DENBORALIZAZIOA:

**DENBORALIZAZIOA:** 3 fase proiektu guztietan: ikerketa- gauzatzea- hausnarketa (garrantzitsua da, ikaslearen aukera dena delakoa, elkarrizketa kooperatibo saioak programatzea prozesuaren fase ezberdinetan, hausnarketa kritikoari eta prozesuaren ebaluazioari espazioa emateko). Hiru faseak ez dira orden horretan joan behar, baina hirurak ematen direla bermatu behar da.

**METODOLOGIA:** Ikerketa talde elkarreragileak+ hausnarketa dialogiko kooperatiboa + erronka gauzatzea. Garrantzitsua da HELBURU (ataza) bat zehaztea proiektu bakoitzeko; helburu horrek koherentea izan behar du ikasgaiaren 3 helburu estrategikoekin.

## - PROZESUAREN TALDEA+TUTOREAK                      GIDARITZA:                      ZUZENDARITZA

- **Zuzendaritza taldea/ ziklo-ikasturte koordinatzailea/ berrikuntza arduraduna/ orientazioa:** Komunitatearen azterketa alde aurretik egin + komunitatearen inguruko baliabideak eman tutoreei + tutoreen zalantzak argitu prozesuan zehar.  
\*OHARRA: Tutore bileretan, gutxienez hilean behin, puntu bezala sartu behar da, jarraipena egiteko eta tutoreen beharrei erantzuteko.
- **Tutoreak:** Ikasleen prozesuaren bidelagun izan + hausnarketa dialogikoak gidatu + ebaluazio hezitzailea (ikaslea/taldea/prozesua); ez da kalifikaziorik behar.
- **Hezkuntza komunitatea:** Guraso Elkarte, ikastetxeko langilego ez irakaslea... oso garrantzitsua da horien inplikazioa espazio honetan (proiektuarekin logika duenean) eta horrek zuzendaritza taldearen ardurapean egon behar du, tutoreekin elkarlanean.

# PROIEKTUETARAKO PROPOSAMENAK ZIKLOKA

## DBH 1GO ZIKLOA:

### INSTITUTUKO URTEKARIA

- Helburua: Ikasleek, auzoko, herriko edo bailarako aldizkariaren laguntzaz, institutuko urtekaria egitea. Baita ere, prozesu honetan zentrua, langileak, ikasle nagusiagoak, antolakuntza eta zerbitzuak ezagutzea eta alderantziz.

- Erronka posibleak:

- Urtekaria egin (diseinatu, idatzi...).
- Elkarlanean arituko garen aldizkarian parte hartu: atal bat sortu ikastetxearen izenean...

- Prozedura:

- Hasieran ikerketa fase bat egongo da. Fase luze honetan Institutu bateko urtekari bat zer den, institutuko antolakuntza zein den, zerbitzuak zeintzuk diren, zer proiektu dauden...aztertuko dute ikasleek.
- Lehen fase honetan oraindik, urtekari baten atalak zeintzuk izan ohi diren eta proposamen berriak zeintzuk izan daitezkeen aztertuko da (elkarrizketak, erreportaiak, iritzi artikulak...). Fase honetan auzoko, herriko edo bailarako aldizkaria aztertuko dugu eta haiekin harremanetan jarriko gara euren erredakziora bisita bat egin eta nola lan egiten duten ikusteko, pautak eta gomendioak jasotzeko, zalantzak argitzeko...
- Behin ekoitziko den produktua eta urtekariaren gaia den objektua aztertuta, lehen mailako ikasleak euren aurkezpenean zentratuko dira, formatua edo formatu ezberdinak erabakitzen joateko. Horretarako interesgarria izan daiteke formatu ezberdinen gaineko ikerketa lan bat egitea.
- Puntu honetan hausnarketa sakon eta luze baterako momentua dela uste dugu. Elkarrizketa kooperatibo eta argudiatuan oinarritzen den fase honetan, urtekariaren forma zehaztea da xedea.
- Behin urtekaria nondik joan daitekeen pentsatuta, aldaketetara zabalik, noski, garatzen hasi ahal gara: kurtso ezberdinetako ikasleak ezagutu eta elkarrizketak egin, erreportaietarako proiektu eta zerbitzuak hautatu eta hauek aurrera eraman, lehen mailako aurkezpenak egin...
- Azken fase baten, urtekaria diseinatu eta sortzeko momentua da. Kurtsoa bukatu aurretik ekoiztea da helburua.

- Oharra: Proiektu hau urte osorako proiektu gisa ikusten dugu eta batxilergoko bigarren mailako ikasleen laguntzarekin egin daitekeela uste dugu ere. Batxilergoko bigarren mailako lehen hiruhilekoa, DBH1eko ikasleak ikerketa fasean daudela kontutan hartuta ere, egoki ikusten dugu orientazio proiektu bat egitea. Bigarren eta hirugarren hiruhilekoa ordea, posible eta polita ikusten dugu elkarlanean aritzeko aukera.

## **HELBURU SOZIALA DUTEN ELKARTEEKIN ELKARLANEAN**

Helburua: ikasleek helburu soziala duen zonaldeko elkarte batekin elkarlanean aritzea, haren ekarpena balioan jarri eta ongizate zein justizia sozialaren bilaketan, lehen pertsonan esperientzia bat izatea.

- Erronka posibleak:

- Diru bilketa bat egin elkarte horrentzako.
- Elkartearen jardueretan parte hartu.
- Elkartea ezagutarazteko kanpaina diseinatu eta gauzatu.
- Elkarteari/ei espazio bat eman ikastetxean.

- Prozedura:

- Herri, auzo edo bailaran dauden elkarteek gainera ikerketa bat egin eta hortik helburu sozialdun elkarteak hartu eta hauen sakonago aztertu. Zein da bakoitzaren motibazioa, lana, helburua, egunerokotasuna... Interesgarria litzateke hauetariko bakoitzarekin elkarrizketa bat izatea.
- Elkarte hauekin lan kolaborazioak egiteko aukerak aztertu eta bideragarria den kasuan proposamen bat egin. Puntu honetan elkarte bakoitzak behar duen lituzkeen kolaboratzaileen arabera, ikasleen interesen arabera eta logistikak ahalbidetzen dituen aukeren arabera planteatuko ditugu proposamenak.
- Elkarteko/Elkarteetako kideekin batera egin daitezkeen kolaborazioen azterketa eta egokiena denaren aukeraketa egin. Garrantzitsua da, posible den heinean, ikasleek parte hartzea prozesu honetan eta ez daitela izan helduek eurentzako baina eurak kontutan hartu gabe antolatutako zerbait bakarrik.
- Kolaborazio fasea: printzipioz ordu lektiboen barruan egiteko zerbait izan behar da. Institutuko ordutegia dela eta, eta jarduera mota kontutan hartuta, irteera bat antolatzen den moduan antolatu daitezke hau.
- Hausnarketarako fasea: egindako lanaren gainera hausnarketa egiteko momentua da. Beharrezkoa da, fase honetan, ikasleei errealitatearen konplexutasuna aztertzen lagundu diezaieketen metodologiaren bidez kudeatzea. Elkarrizketa argudiatu kooperatiboa proposatzen da.

Oharra: Proposamen honek hartu dezakeen denbora aldakorra da, faktore askoren arabera delako. Hala ere, eta ikerkuntza faseari duen garrantzia eman ezker, gutxienez hiruhileko baterako da.

## **HERRI ERAGILE ETA ELKARTEEN AZOKA**

- Helburua: Auzo/Herria eta ikastetxearen arteko kohesioa eta elkarlana bultzatu, herri eragileak (elkarteak, jai batzordeak, udal zerbitzuak...) ikastetxeko proiektua indartze bidez jarri eta ikasleak aktibazio sozialak kalitatezko demokraziaren garapenean duen garrantziaren jabe izan daitezten.

- Erronka posibleak:

- Azoka antolatu ikastetxean.
- Azoka antolatu herrian.

- Azoka antolatu familientzat.
- Elkarteen arteko topaketa bat beraien elkarlana sustatzeko.

- Prozedura:

- Herri/auzo eragile eta elkarteen mapa diseinatu. Ikasleek ikerketa egingo dute dauden eragile guztiena eta jorratzen dituzten arloena eta horren mapa egingo dute zentroaren esku jartzeko.
- Eragile guzti horietatik, interes gehien sortzen dietenak eta ikastetxeko ildo estrategikoekin bat datozenak aukeratuko dituzte eta, interesen arabera taldekatzea eta gero, horien inguruko ikerketan sakonduko dute.
- Hezkuntza komunitatea eta eragileen arteko ezagutza eman dadin, ikastetxeak HERRI ERAGILE ETA ELKARTEEN AZOKA diseinatu, planifikatu, dinamizatu eta burutuko dute. Horretara familiak, guraso elkartea, irakaslegoa zein ikaslegoa egongo da gonbidatuta.
- Prozesuaren hiru faseetan hausnarketa kritikoa presente egon behar du, ikasleek beraien lanaren zein eragileen eta jorratzen dituzten gizarte erronken inguruko hausnarketa egin dezaten (hausnarketa sistematizatu daitezke lau saiotik behin, eztabaida dialogiko kooperatiboa egin dezaten, irakaslea erraztaile paperean jarrita).

- Oharra: Zuzendaritza taldeak lidergoa eraman behar du, irakasleei zein ikasleei behar dituzten baliabide guztiak (herri eragileen inguruko informazioa barne) helaraziz, baina baita, ikastetxeko proiektuarekin uztarketa lideratuz. Hala ere, irakaslea izango da gela barruko dinamizazioa gidatuko duena. Hala ere, ez dugu proiektua hainbeste bideratu nahi, testuinguruak eta pertsonak oso ezberdinak bai dira, eta ikastetxe-ikasleen kasuistikak ere bai.

## **DBH 2. ZIKLOA:**

### **BELAUNALDI BERRIAK ELIKATZEN**

- Helburua: Elikadurarekin harremana duten auzoko/herriko/hiriko eragile elkarte eta saltokiekin elkarlanean, ikerketa eta hausnarketatik abiatuta, ikasleek jakien ekoizpen, merkaturatze, alferrik galtze eta sukaldatzeari buruz ikastea, prozesua esku-hartze batekin edo batzuekin bukatzeko (ortu bat sortu, ikasleek sukaldatutakoarekin zeozer antolatu, auzoko janari dendeekin kolaboratu, elikagaien bankuarekin kolaboratu...).

- Erronka posibleak:

- Ortu bat sortu.
- Sukaldatzen ikasi eta jardunaldi gastronomikoak antolatu.
- Elikagaien bankuekin elkarlanean kanpaina garatu.
- Jantokiko janari soberakinen kudeaketarako sistema sortu eta martxan jarri.
- Tokiko elikagai merkatariekin elkarlanean kanpaina osatu.

- Prozedura:

- Elikaduraren gaiaren gaineko sarrera ikerketa bat egingo dugu hasteko: Ekoizpen eta merkaturatze modu ezberdinak aztertu, dieta osasuntsu bat zer den ikertu eta gizarte mailan jaten dugunaren gaineko datuekin alderatu, janariaren inguruan gizarte mailan

ditugun kontsumo ohiturak ikertu, munduan dagoen janariaren banaketa aztertu eta alferrik galtzen den jakien gaineko datuak aztertu...

- Behin faktore guzti hauek lehen hurbilketa bat eginda, eta fase luzea da lehena, guzti hau ikasleen errealitate eta kontestu hurbilarekin lotzeko momentua da. Aurreko puntuak norbere bizitzarekin nolako harremana duten ikertzea da helburua fase honetan, bai indibidualki hala nola familian, lagunartean, institutuan, auzoan... Ikasleek dakitenaz gain beraz, auzoko eragile eta elkarten gainean ikertu beharko dugu ere bigarren fase honetan.
- Sarrera honen ondoren lehen hausnarketa fasea dator. Fase honetan momentu honetararte ikusitako guztiaren inguruan hausnartuko dugu elkarrizketa argudiatu kooperatiboaren metodologia erabiliz. Fase honen helburua bikoitza da: emandako gaien ikasleentzat garrantzitsuak diren gaien inguruko hausnarketan sakontzea, baina baita ere gure proiektuaren norabidea erabakitzea. Hausnarketa fase honetan beraz, aurrera eramango ditugun kolaborazio eta jarduerak erabaki beharko ditugu.
- Behin jarduerak eta kolaborazioak zeintzuk izango diren erabakita, pausuak planifikatu eta ekintzekin hasteko momentua da. Hemendik aurrera ikasleek erabakitakoaren arabera izango dira jarduerak, beraz ezin dugu gehiago zehaztu.
- Proiektuarekin bukatzeko hausnarketa fase bat egingo dugu berriz, metodologia berdina erabilita. Ikasleen ideiak eta iritziak aldatu diren ikusteko momentua da, baina baita ere egindakoaren balorazioa egiteko.

- Oharra: Proiektu hau oso zabala da. Proposatzen diren ildo guztiak elikadurarekin daude lotuak, baina oso bide ezberdinetatik doaz. Garrantzitsua da ikasleek erabakitzea nondik joan nahi duten, baina posible da ere ekintza eta kolaborazio ezberdinak planteatzea. Iraupenari dagokionez, planteatzen ditugun jardueren arabera izango da, baina gutxienez hiruhileko baterako proiektua dela deritzogu, urte osokoa ere izan daitekeelarik.

## **BELAUNALDI ETENA TXIKITZEN**

- Helburua: Ikasleek herri/auzoko jubilatuen euren zailtasunei, zailtasunei, galderei, gabeziei... aurre egin elkarlanaren bidez, hauek, gazteak euren zailtasunei, zailtasunei, galderei, gabeziei... aurre eginez elkarlanean ere.

- Erronka posibleak:

- Herriko erresidentzia eta zahar etxeetan irakurketa saioak antolatu.
- Herriko erresidentzia eta zahara etxeetan elkarrizketak eta paseok antolatu.
- 3. adineko pertsonak teknologekin dituzten zailtasunekin lagundu.
- Memoria Historikoaren erakusketa: nagusien espereintzietatik abiatuta erakusketa antolatzea.

- Prozedura:

- Herri edo auzoko jubilatuen elkartearekin kontaktuan jarri eta proiektuan parte hartu nahi duten pertsona kopurua jakinda, ikasleak banaka edo taldeka jarri eta jubilatuen banoa egokitu ikasle/ikasle-talde bakoitzari.
- Jubilatuen arazo, zailtasunetatik... hasi. Ikasleak izan behar dira lehenak laguntza ematen, harremana eratzen joan daiten eurak eroso eta baliozkoak sentitzetik.
- Jubilatuen arazo, zailtasunen... gaineko hausnarketa bateratua egin. Gelako guztien artean hobeto aztertu ditezke eta erantzun, soluzio... hobeagoak pentsatu.

- banaka edo talde txikietan, erabakiak hartu eta erantzun edo proposamenak erabaki, baita egin beharrekoak aurrera eraman kasua baldin bada.
- Nerabeek euren zalantza, gatazka, zailtasunen... inguruko hausnarketa bat egin, ideiak ordenatzeko jubilatuegana jo aurretik
- Behin ikasleek laguntza emanda, jubilatuekin solastu: elkarrizketa honetan gazteek euren arazo, galderak... jarri ditzakete mahai gainean, baina baita jubilatuek eskeintzeko dutena azaldu, .
- Gazteek jubilatuekin egin bezala, jubilatuek gazteak lagundu euren beharrizan eta gabezietan.

- Oharra: Gazteen eta jubilatuen arteko harremanean atera daitezkeen beharrizanen aurreikuspen bat egitea posible da: digitalizazioarekin arazoak edo gaurko gizarte-gazteei buruzko galderak jubilatuetan, edo arazo bitalak (gurasoekin, lagunekin, maitsun kontuak...) zein gabezi praktikoagoak (sukaldata, josi, gauzak konpondu...) gazteengan. Hala ere, ez dugu proiektua hainbeste bideratu nahi, testuinguruak eta pertsonak oso ezberdinak bai dira, eta ikastetxe-ikasleen kasuistikak ere bai.

## **ESKOLAKO ESPAZIOEN KUDEAKETA ATSEDENALDIETAN**

- Helburua: ikasleek, institutuko barne antolaketan hain konplikatu den, eta eurekin zuzenean lotuta dagoen gai bat kudeatzea kalitatezko prozesu demokratiko bat jarraituz.

- Erronka posibleak:

- Kalitatezko prozesu demokratiko bat antolatu eta garatu.
- Txosten bat osatu zuzendaritzarentzat prozesuaren ondoriekin.
- Patioaren espazio baten diseinua eta dinamizazioa gauzatu.
- Udaletxean aurkeztu proiektua eta espazio publiko bat kudeatzeko eskaera.

- Prozedura:

- Ikasleek egingarritasun plan bat aurrera eramatea: patioak eskaintzen dituen aukerak, ROFak dioena, ikastetxeko proiektua... aztertuz
- Ikasleak kurtsu guztietatik pasatzea ikerketa honen emaitzak azaldu eta proposamenak jasotzera. Eurek ere, noski, euren proposamenak egin ahal dituzte.
- Ikasleek proposamenak aztertzea eta egingarriak ez direnak kanpoan uztea. Egingarriak direnak azaltzea berriz ere gelaz gela.
- Gela guztietan, tutoretza saioan, proposamenen gaineko elkarrizketa bat egingo da, non prozesua antolatzen duen kurtsoko ikasleak egongo dira, zalantzak argitzeko.
- Bozkaketa bat antolatzea eta aurrera eramatea, aurkeztutako proposamen egingarrien artean.

- Oharra: Proiektu honetako helburua patioaren kudeaketa antolatzea da, baina helburu hezitzailea kalitatezko prozesu demokratiko batetan parte hartzea da. Kasu honetan institutuko kurtsu guztiak hartzen ditu prozesuak, eta aipatutako faseak moldagarriak dira eta nahi bezain beste luzatu daitezke (eztabaida gehiago, sakonagoak...).

## **BATXILERGOA**



## **GELA EGONKORRAREKIN LANEAN**

- Helburua: inklusioaren inguruko hausnarketari begira jartzea ikaslegoa, zentroan bertan dauden adibideetatik abiatuta. Aldi berean, gela egonkorreko ikaslegoaren eta hezitzaileen eta gainontzeko ikaslego eta irakaslegoaren arteko harremanean sakontze ariketa bat, bere beharrei aurre egitearekin batera.

- Erronka posibleak:

- Errekroetan gela egonkorreko ikasleekin dinamikak egiteko proiektua diseinatu eta gauzatu.
- Aniztasun funtzionalaren inguruko informazio eta enpatia kanpaina sortu ikastetxean.
- Arte proiektu bat sortu gela egonkorrekin elkarlanean.
- Eskola orduetatik kanpo jarduerak sortu gela egonkorreko ikasleek parte har dezaten.

- Prozedura:

- + **ALDEZ AURRETIKO OHAR GARRANTZITSUA:** Proiektu hau Gela Egonkorrean lan egiten duten profesionalekin eta, beharrezkoa ikusiz gero, familiekin diseinatu behar da, talde bakoitzaren eta ikastetxe bakoitzaren espezifikotasunen arabera eta Gela Egonkorrearen erritmoak eta beharrak errespetatuz. Gela Egonkorra egongo ez balitz, auzoan/herrian dauden aniztasun funtzionalaren inguruko eragileekin lan egin daiteke.
- Ikasleek Gela Egonkorrearen inguruko errealitatea eta espezifikotasunak ezagutuko dituzte. Horretarako bertako profesionalei informazioa eskatu ahal zaie, familiekin elkarrizketak egin, bertatik-bertara ezagutu... Horiekin guztiarekin inklusioaren inguruko hausnarketan sakontzera gonbidatuko da ikaslea.
- Interbentzio plan bat diseinatuko da, azpitaldeka: asteen behin ikasle talde bat gela egonkorreara joango da, atsedenaldi orduetarako dinamika bat zehaztu, beste ikasleen arteko sentsibilizazio plana, dinamika partekatuko batzuk diseinatu... Hori gauzatzen hasiko da ere.
- Diseinatutako interbentzioa aurrera eramango dute. Horrekin batera, edo prozesuaren amaieran, esperientzia horren inguruko hausnarketa egin eta honen partekatzea egingo da gela egonkorreko kideekin, familiekin, hezitzaileekin...

- Oharra: Proiektu hau gauzatuz gero, oso garrantzitsua da etengabeko koordinazioan egotea Gela Egonkorreko hezitzaileekin, horretarako komunikazio bideak sistematizatu eta naturalizatu behar dira.

## **IKASKETA BIDAIA IKUSPEGI SOZIALAREKIN**

- Helburua: ikasleak izan daitezen beraien ikasketa bidairaren sustatzaileak eta antolatzaileak, baina aldi berean, zonaldeko eragile sozial batekin elkarlanean egitea. Honez gain, helburu soziala duten jarduera kopuru bat garatzea prozesuan zehar.

- Erronka posibleak:

- Ikasketa bidaia diseinatu.

- Elkarlan kanpaina diseinatu elkarte sozialarekin.

- Prozedura:

- Zonaldeko eragile sozialen azterketa bat egin behar dute aldez aurretik, argazki erreala izateko eta horien jarduna sakon ezagutzeko. Horrekin batera, beraiekin harremana egin behar dute jakiteko zeintzuk dauden prest proiektuan parte hartzeko.
- Ikaslegoaren artean, ikasketa-bidaien lehiaketa bat antolatzen da, non ikaslegoa taldeka proposamen bat (ibilbidea, aurrekontua, dirua lortzeko jarduerak, ikasbidaiko jarduerak, elkarbizitza arauak...) diseinatzeko duten eta irakaslego talde baten ikuskaritza pasa beharko du (bideragarritasuna eta baldintzak betetzea).
- Bidaiaren aukeraketa prozesurako, hausnarketa argudiatua egingo dute ikasleek lehenengo, proposamenen gainean denon artean pentsatzeko. Kontsentsua bilatzen saiatuko dira, baina posible ez balitz, bozkaketara pasa daitezke.
- Behin erabakia hartuta eragile sozialarekin ibilbide bat zehaztuko da, kolaborazioak zein momentutan eta zeintzuk izango diren zehazteko.
- Prozesuaren gauzapena emango da, bidaia erabat diseinatuz eta aurretik itxi beharreko guztia lotuz. Garrantzitsua da ikasleak izatea ardura nagusia nahiz eta irakasleak ikuskaritza etengabea egin behar izan prozedura guztiak zuzenak direla bermatzeko.

- Oharra: Proiektu honen azken ataza ikasketa bidaia antolatzea da, baina helburu hezitzaileak kalitatezko prozesu demokratiko batetan parte hartzea eta eragile sozialen inguruko kontzientzia hartzea dira. Aisialdia, ekintzailatasunarekin eta konpromiso sozialarekin lotuta egon daitekeela transmititu nahi da, eta hau gozagarria izan daitekeela argi utzi.

## **GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKA BORROKATZEN**

- Helburua: Gizarte-bazterketaren kausak eta ondorioak ezagutzea, egoera horretan dauden pertsonak eta horren kontra lan egiten duten erakundeak ezagututa, gizarte-bazterketaren gaineko hausnarketa bat egiteko, haren kontra egin dezakeguna aztertzeke eta pertsona hauei gure laguntza emateko.

- Erronka posibleak:

- Diru bilketa bat egin elkarte horrentzako.
- Elkartearen jardueretan parte hartu.
- Elkartea ezagutarazteko kanpaina diseinatu eta gauzatu.
- Elkarteari/ei espazio bat eman ikastetxean.

- Prozedura:

- Gure zentrutik hurbil, gizarte bazterketaren eremuan lan egiten duten elkarteak aztertu eta erabaki zeinekin/zeintzuekin garatu nahi dugun gure proiektu kooperatiboa.
- Behin erabakita, kontaktuan jarriko gara elkartearekin eta haren errealitatea hobeto ezagutzeko jardunaldiren bat antolatuko dugu. Elkartearen lana ezagutzeaz gain, garrantzitsua litzateke bazterketa egoeran dauden pertsonen testigantzak ere izatea, zenbat eta gehiago eta anitzagoak hobe.

- Hirugarren fase batean gizarte-bazterketaren gaineko ikerketa sozio-politiko bat planteatzen dugu. Iturri fidagarrietara joz, haren kausak eta ondorioak aztertuko ditugu, eta arazo honi aurre egiteko erakunde publiko eta pribatuek egiten dutena aztertuko dugu.
- Laugarren fasean, behin ikerketa lana eginda eta errealitatea lehen eskutik ezagututa, hausnarketa sakon baterako momentua da. Hausnarketa honek errealitatearen konplexutasunarekin bat egin dezan garrantzitsua da mezu konkretuak eta “moralinak” alde batera uztea, eta horretarako, elkarrizketa dialogikoren ildoan doan elkarrizketa argudiatu kooperatiboaren erabilpena funtsezkoa dela gogoratu nahi dugu berriz ere.
- Hausnarketa fasearen ondoren, talde moduan aurrera eramango ditugun neurrien gainean erabakitze momentua da. Nahiz eta harremana sortu dugun elkartearekin zerbait egitea ezinbestekotzat jotzen dugu, euren kolaborazioak gure partetik zerbait jasotzea merezi duelako, ikasleen jarduerak ez dute zertan eremu horretara soilik mugatu behar. Hala ere, eta elkarteekin planteatzen den kooperazio horretan, gure aportazioa modu askotakoa izan daiteke: gure lana eta denbora ematea, diru bilketa bat antolatzea ekonomikoki laguntzeko, elkarteen zein laguntza jasotzen duten pertsonen beharrezanetan edo eta ideia berrien proposamen eta garapenean laguntza ematea...
- Behin erabakia hartuta, adostutako jarduerak garatzeko momentua da. Jardueren arabera antolakuntza eta denboralizazio oso desberdina izan dezake fase honek.
- Proiektuari amaiera emateko azken hausnarketaren fasea dator. Honetan, prozesuaren gaineko azterketa bat egingo dugu, egindakoak baloratu eta aurrera begira gure bizitzan egin daitezkeenak mahai gainean jartzeko.

Ohara: DBHko lehen mailan elkarteekin elkarlanean aritzeko proposamen bat dago ere, baina garrantzitsua da ulertzea honen eta haren arteko ezberdintasuna. Alde batetik, lehen mailakoan helburu soziala duten elkarteetan zentratzen ginen eta oriango honetan gizarte-bazterketari lotutakoa izan behar da, derrigorrezko hezkuntzan gai hori ikutzen dela bermatu nahi dugulako. Horretaz gain, eta ikasleen adina, jakintza eta hausnarketarako gaitasunean dagoen aldea kontutan izanda, esperientzia eta kooperaziotik harago doan proposamen bat da hau, arazoaren ulermen zabal eta sakonago bat bilatzen duena, hausnarketa eta planteatu ahal ditugun hobekuntzak era sakonagoak izateko.